

Eskiula, Euskal Herriko herria

• PAULO AGIRREBALTZATEGI •

(IDAZLEA)

Uztail honen 23an eta datorren abuztuaren 6an jokatuko dute Eskiulan Madeleine Jauregi-berriren oroimen eta omenezko Pastoralak. Mixel Berzaitzek paratua.

Duela hiruzpalau hilabete idatzi zuen Harluxet Hiztegi Entziklopedikoaren bulegora Bilboko lagun batek, Eskiula herriari buruz argibideren batzuk eskatuz. Izan berria zen nonbait alderdi haietan, eta, informazio bila, Harluxet Fundazioak ateratako Euskal Herriaren mapa ikusi zuen, non Euskal Herriaren eremuetatik kanpo baitago ipinita Eskiula. Berak, ordea, Frantziako turismo informazio-orri ofizialen batean ere ikusia zuen Euskal Herriaren barruan ipintzen zutela Eskiula. Harri-tuta eta kezkatuta galdezka zetorren.

Argibideak eskatzen zituen, eta saiatu nintzen argibideren batzuk egiten. Hona zer aurkitu nuen, eta zein ondorio atera.

1. Ipar Euskal Herriko Garapen Kontseiluak Euskal Herriaren barruan sartzen du Eskiula (ik. *Schéma d'Aménagement et de Développement du Pays Basque. Euskal Herriko Antolaketa eta Garapen Eskema* [Karten bilduma toman. *Aménagement linguistique* izeneko mapan]). Baina horrek berak eskaintzen duen kantonamenduen mapan Maule-Lexarre-kantonamendutik kanpo geratzen da Eskiula. Izatez, Eskiula ez da Maule-Lexarre kantonamenduko, Oloro kantonamenduko baino.

2. *Lur eta gizon. Euskal Herria* (Jakin, Oñati 1974) liburuko *Euskal Lurra* artikuluan (11-63 or.), Euskal Herriko eskualde historikoak azaltzean, Jose Luis Lizundiak ez du sartzen Eskiula Zuberoko eskualdeetan: Basabürria, Arballa eta Pettarra eskualdeetan, alegia.

3. Auñamendik Euskal Herrian koka-

zuten du Eskiula: «*Municipio zuberotarra, situado al E. de la provincia*» (baina Administrazio frantsesean ez dago horrelako Probintziarik; Euskal Herriatik bakarrik hartzen dugu Zuberoko Herrialde edo Lurralde historikotzat).

4. *Lur Hiztegi Entziklopedikoa*: «Biarnoko udalerrri zuberotarra, Oloro izeneko kantonamenduan». Nork ulertzen du hori?. Baina ondoreno oraindik gauza bitxiagoa: «Mugak: ipar, hego eta ekialdean Biarno eta mendebaldean Barko-xe». Nola izan daiteke Biarnoko udalerrria, Biarnorekin muga egiten badu.

5. Euskal Herriko geografiazko liburua da *Ibaiak eta Haranak*, Etor, Donostia, 10. tomoan (1991) Eskiula ere badator herrietan buruzko banan banango informazio laburrean. Eta honela dio: «... Se trata de una colonia vasca en territorio bearnés...». Zer esan nahi ote du horrek, euskaldunak kolonizatu zutela Biarno, eta euskaldunak joan zirela Zuberoraitik hara bizitzera?

6. Euskaltzaindiak argitaraturiko *Euskal Herriko Udalen Izendegia* liburuxkan (1979) Zuberoko udalerritzat ageri da Eskiula.

7. Era berean Batonako Atabalak Sabino Arana Elkargoaren laguntzarekin ateratako *Hautetsiak. Erakundea / Elus. Instituciones / Instituciones. Cargos electos* liburuan (1994 argitalpenean) Zuberoko udalerritzat ageri da Eskiula. Jakitekoa da liburu hori Eusko Jaurlaritzaren eta Conseil Général des Pyre-

nées Atlantiques erakunde publikoaren laguntzarekin eta Nafarroako Gobernuaren sostegiarekin atera zutela. 1997ko argitalpenean berdin ageri da —Sabino Arana Elkargoak zuzenean egin zuen urte horretako argitalpena, Eusko Jaurlaritzaren laguntza eta beste bi erakunde publikoen babespean—.

8. *Harluxet Hiztegi Entziklopedikoa*-k honela dio Eskiula artikuluan: «Biarnoko herria, Zuberoko muga, Oloroeko Ktdu.an (Pirinio Atlantikoak). Euskal

Herriatik kanpo eta gaskoiera mintzatzen den ingurunean egon arren, bertako gehienak euskaraz mintzatzen dira, zubereraz». Gauza bertsua idatzi dute Elhuyar-en *Hiztegi Entziklopedikoa*-k eta Harluxeten *Euskal Hiztegi Entziklopedikoa*-k. Harluxeten Euskal Herriko mapak ere, horien irizpideari eutsiz, Euskal Herriko mugetatik kanpo ipini zuen

Eskiula. Zertan oinarritzen dira horiek Euskal Herriatik kanpo dagoela esateko? Seguruenik, Oloroeko kantonamenduko izatean. Baina kantonamenduen banaketak ez daude Euskal Herriaren mugen egokitzuz eginda.

Ezaguna da Frantziako Administrazioan ez dagoela Euskal Herria izeneko Euskal Herriatik kanpo dagoela esateko? Seguruenik, Oloroeko kantonamenduko izatean. Baina kantonamenduen banaketak ez daude Euskal Herriaren mugen egokitzuz eginda.

“
Euskal Herriatik begiratuta, hiru ikuspegi behintzat erabil genitzake Eskiula Euskal Herriko herria den ala ez argitzeko

gogoratu
• JOXAN ELOSEGI •

• Duela 478 urte

Amaiur gaztelu baltz ori

U1522ko uztailearen 19an, Gaztelako ostenen aurrean errenditu ziren Amaiurko gazteluan Nafarroako erresumaren alde borrokatu ziren azken zaldun nafarrak. Hamar hilabete lehenago sartuak ziren Lapurdialde berrehun lagun, agramondarrek guztiak, Nafarroako erresumaz jabetuak ziren oste gazteluak ohildu nahian, baina, gutxi izaki, Amaiurren gotortu behar izan zuten, ipar aldetik sekula iritsiko ez zen laguntza noiz etorriko zain. Nafarroako lur eta ibar guztietako zaldun prestu as-

koak bilduak ziren Amaiurrera, baita distira handiko aitonen seme batzuk ere, agramondarren buruzagiak, Jaime Belaz de Medrano eta haren seme Luis, Juan de Azpilkueta eta Migel de Jaso (Frantses Xabier, geroko santuaren anaiak) tarteko.

Ez zuten egonaldi xamurra egin. Nafarroako indar okupatzaileak berriro antolatuta orduko agindu zuen Gaztelako erregeordeak, Mirandako kondeak, Amaiurko gaztelua inguratu eta bertan zeuden guztiak hil edo atxiki zitazela. Laguntza eskerga ja-

so zuten gazteluek beamondarren aldetik: haien esanetara jarri ziren Leringo kondea eta Baztango Ursuaitarrak, beharreko dirua aurreratu zuten Iruñeko beamondar aberats batzuek kanpaina hartarako. 1522ko uztaileko bigarren astean, gudatalde handia bildu zuen Mirandako kondeak Amaiurko gazteluaren inguruetan. Zirt-zart, ez zuen gudu luzerik nahi. Kanoiek eta minek eman zituen hasiera erasoari. Arteziz beterik gelditu ziren gazteluko hormak, baina defendatzaileek bulartsu

gabeko lurraldea da, nolabaiteko ezagarrri historiko eta kulturalak dituen, eta Turismo- eta agian Kultur politikari kontuan hartzekoa, baina beti oinarriko barruti-banaketa haien arabera. Eta haien arabera, Eskiula Oloroeko kantonamenduko udalerrria da, ez besterik.

Euskal Herriatik begiratuta, hiru ikuspegi behintzat erabil genitzake Eskiula Euskal Herriko herria den ala ez argitzeko: 1. *Historia*: Frantziako Iraultzaren aurretik, Zuberoko Basabürria edo beste bi *Mezularitzetako (Messagerie)* baten barnean sartzen zen ala ez Eskiula (Auñamendiren Entziklopediak ez digu argitzen). 2. *Geografia*. Barkoetik hurbil dago Eskiula, eta Geografia fisikozkoen aldetik Euskal Herria izan daiteke, gutxienez horren jarraipena delako lurraldez, Barkoekin muga egiten baitu (horregatik oso ausarta da Biarnoko euskal kolonia dela esatea, bestelako datu historikorik gabe). 3. *Hizkuntza*. Auñamendik digu biztanleetatik % 98 euskaraz mintzatzen dela; beraz, ez dago zalantzarik, alde horretatik Euskal Herriko herria litzatekeela, kontrako bestelako arrazoirik ezean.

Irizpide horietan oinarrituz seguruenik Euskal Herriko herritzat hartu ohi du hainbatek (Auñamendik, Euskaltzaindiak, Atabalak, Sabino Arana Fundazioak, Pyrenées Atlantiques Departamenduen mapak, Garapen-Kontseiluak, etab,ek) Eskiula.

Ulertzekoa da Euskal Herriatik kanpo jartzea ere, departamenduen banaketan oinarrituz. Baina, alipaturiko horien jokabidea —bereziki Iparraldeko talde eta erakundeen jokabidea— kontuan harturik, badirudi Euskal Herriaren barnean sartu behar dugula Eskiula. Eta beraz Harluxetek bere Entziklopedia(k) eta mapa zuzendu egin beharko dituela.

eutsi zioten plazari, mantenu eta muniziorik gabe errenditu behar izan zuten arte. Miretsirik utzi omen zuen erregeorde espainiarra hesituen adorea. «Ez duzu zertan harritu, nafarrak dira», esan omen zion orduan Leringo kondeak, nafar izateaz harro. Iruñeko kartzelan sartu zituzten guztiak, hiltzeko kondena ezarri zieten buruzagiei. Migel de Jasok ihes egin ahal izan zuen, baina lepo egin zituzten Belaztarrak abuztu hartan berean.

Estatu modernoaren ezagarrrietara hurbiltzen hasi zenean sartu ziren espainiarrak Nafarroan. Huts egin zuen Nafarroako erregetzak XVI. mende hasiera hartan. Nafarroa eta Euskal Herri askearen ikurra da Amaiur, haren bildutakoak, Nafarroako erregearen alde baino, Nafarroaren alde borrokatu zirelako.